

## Antzerkia Teatro

Uztaila **30** julio – Abuztua **02** agosto

### **PÁNICO**

COART + E & FELIPE ANDRÉS PRODUCCIONES

**Antzoki Zaharra** Teatro Principal. 20:00. 20 €, 15 € castellano

Leo ordu txikietan iritsi da Max-en pisura, mozkortuta. Umetatik dira lagunak, boy-scoutetan zeudenetik... Leok gaua etxe hartan pasatzen uzteko eskatzen dio Maxi, eta biharamun goizean hasten da historia. Lotsaturik eta desesperaturik, fabore bat eskatzen dio lagunari: astebetean terapeuta izan dakiola, hain justu ere denbora hori eman baitio bikote-lagunak, erantzun bat aurkitzeko bikoteak ustez bizi duen krisiari. Baina Leok ez du ulertzen Max ere krisi existentzialean sartuta dabilela, emazteagandik banandu berri baita, eta hori gainditzeko terapia hartu behar izan baitu... Ez zuen funtzionatu, ordea, eta orain oreka espiritualaren fasean dago, meditazio-ariketen eta isiltasunaren fasean... Eta azak ontzeko, hor agertzen da Joni, Maxen anaia eta Leoren laguna hura ere, arrakasta handia duen telebista-programa bateko aurkezlea, kontzentratzeko eta berekoikeria-arazo izugarria duena.

Leo llega de madrugada y borracho al piso de Max. Ambos son amigos de la infancia, de cuando estaban en los *boy-scouts*... Leo le pide pasar la noche en su casa y es a la mañana siguiente cuando comienza esta historia. Avergonzado y desesperado le pide un favor a su amigo: que sea su terapeuta durante una semana, justo el tiempo que le ha dado su pareja para encontrar una respuesta a su presunta crisis.

Pero Leo no entiende que Max está atravesando un crisis existencial porque hace poco se separó de su mujer y tuvo que ir a terapias para superarlo... No funcionó y ahora está en la fase del equilibrio espiritual, de los ejercicios de meditación y del silencio... Y para colmo, aparece Joni, hermano de Max y amigo también de Leo, presentador de un programa de televisión de mucho éxito, y que padece un enorme problema de concentración y egoísmo.

### **05-09**

#### **LA FIESTA DEL CHIVO**

JUAN ECHANOVE

**Victoria Eugenia.** 20:00. 28 €, 24 €, 20 € castellano

Egilea Autor: **Mario Vargas Llosa**

Zuzendaria Dirige: **Carlos Saura**

Aktore zerrenda osatzen dute Completan el elenco: **Lucía Quintana, Eduardo Velasco, Gabriel Garbisu, Eugenio Villota, David Pinilla**

Ez da batere erraza Mario Vargas Llosa Nobel Sariaren maisulan hau antzerkirako egokitzea, hain da aberatsa eta konplexua. *La fiesta del Chivo*n Trujillo Dominikar Errepublikako diktadorearen azken egunak kontatzen dira. Autorea Urania Cabral pertsonaiaz baliatzen da horretarako, umetan herrialde hartatik alde egin zuen abokatu arrakastatsu batez. Hiru hamarkada geroago, emakumea aita bisitatzera itzuli da, Agustin "Cerebrito" Cabral, Erregimeneko agintari ohi bat, zoritxarrean eroria, hilzorian baitago. Bidaia horretan, protagonistak ihes egin zuenetik gorde duen sekretu bat aterako da argitara.

La obra maestra del premio Nobel de literatura, Mario Vargas Llosa, apenas ha sido adaptada al teatro, por su riqueza y complejidad. En *La fiesta del Chivo* se narran los últimos días del dictador Trujillo en la República Dominicana, el autor se vale para ello del personaje de Urania Cabral, una exitosa abogada que abandonó el país de forma misteriosa siendo una niña. Tres décadas después, regresa para visitar a su padre moribundo, el senador Agustín "Cerebrito" Cabral, un antiguo alto cargo del Régimen

que cayó en desgracia. Durante ese viaje, se desvelará el secreto que la protagonista ha guardado celosamente desde su huida.

**05-09**

**MENTIRAS INTELIGENTES**

MARÍA LUISA MERLO & JESÚS CISNEROS

**Antzoki Zaharra Teatro Principal.** 20:00. 25 €, 20 € castellano

Zuzendaria Dirige: **Raquel Pérez**

Aktore zerrenda osatzen dute Completan el elenco: **Ana Escribano, Juan Jesús Valverde**

Ama batek beti daki zerbait noiz dagoen gaizki. Senarra kezkatuta etxeratu da semearekin tenisean jokatu eta gero, eta Alicia susmatzen hasten da, zerbait ez doa behar lukeen bezala, eta ekin ekiten dio. Jakin-mina asetzea erabaki, eta askari batera gonbidatzen ditu Fer semea eta Sonia erraina. Hondamendia gertatzen da Alicia egiaren bila hasitakoan, eta ondoren aitorenak datoz, espero zituenak baino are handiagoak. Eroa eta barregarria, *Mentiras inteligentes* maitasun-historia bat da, epe luzerako ezkon-bikoteen historia... onerako eta txarrerako. Zer behar dugu zorientsu izateko?

Una madre siempre sabe cuando algo está mal. Cuando su esposo regresa preocupado a casa después de un partido de tenis con su hijo, Alicia empieza a sospechar que algo no va como debería ir y se pone en acción. Decidida a armar el rompecabezas, invita a su hijo Fer y a su nuera Sonia a una merienda. El caos se desencadenará mientras Alicia busca la verdad, lo que da como resultado una serie de confesiones aún mayores que las que nadie esperaba. Disparatada e hilarante, *Mentiras inteligentes* es una historia de amor y matrimonios a largo plazo para bien ... y para mal. ¿Qué necesitamos para ser felices?

**11-16**

**EL MÉTODO GRONHÖLM**

LUIS MERLO & JORGE BOSCH

**Victoria Eugenia.** 20:00. 28 €, 24 €, 20 € castellano

Egilea Autor: **Jordi Galcerán**

Zuzendaria Dirige: **Tamzin Townsend**

Aktore zerrenda osatzen dute Completan el elenco: **Marta Belenguer, Vicente Romero**

Multinazional batean exekutibo lanpostu bat lortzeko azken hautagaiak hautapen-prozesuari buru emango dion proba pasatzera doaz. Denek batera hartzen dute parte proban, eta enpresak proposatutako prozedura borroka bihurtzen da, borroka bat non bai baitirudi maltzurkeriak, ankerkeriak eta eskrupulurik ezak ez dutela mugarik. Noraino iristeko daude prest beti amestu dutena lortzearen truke?

Los últimos aspirantes a conseguir un cargo ejecutivo en una multinacional se someten a la prueba final del proceso de selección. Una prueba conjunta en la que el procedimiento propuesto por la empresa se convierte en un combate donde la astucia, la crueldad y la falta de escrúpulos parecen no tener límites. ¿Hasta dónde estarán dispuestos a llegar para conseguir lo que siempre habían soñado? Marta Belenguer y Vicente Romero completan el reparto de *El método Gronhölml*, una comedia de Jordi Galcerán bajo la dirección de Tamzin Townsend.

**13-16**

**IZENA**

TXALO PRODUKZIOAK

**Antzoki Zaharra Teatro Principal.** 20:00. 20 €, 15 € euskara

Zuzendaria Dirige: **Begoña Bilbao**

Aktore zerrenda Elenco: **Asier Sota, Ane Gabarain, Mikel Laskurain, Joxe Kruz Gurrutxaga, Alazne Etxeberria**

Gure protagonistak aita izan behar du lehen aldiz. Aitatasuna ospatze aldera, bere arreba eta koinatuaren etxean afalduko du, familiako beste lagun batekin batera. Ana, bere bikote eta ama-gaia, berandu iritsiko da afaritara. Afaltzen hasi baino lehen, ama zain daudela, aitatasunak sortzen dituen poztasun eta aldarte onak izango dituzte hizpide, ume jaio-berriari jarri behar dioten izena aditzera emango duen arte. Egundoko kalapita sortuko du izen berak eta eztabaidaren suak bildutakoak erreko ditu, etxeko giroa erabat gaiztotu arte...

Nuestro protagonista va a ser padre por primera vez. Para celebrarlo, acude a cenar a casa de su hermana y su marido, y un amigo de la familia. Ana, su pareja, llegará más tarde a la cena. Antes de empezar a cenar, y mientras esperan la llegada de Ana, le plantean todo tipo de cuestiones sobre su futura paternidad y los cambios que suponen en la vida de una pareja, sin perder nunca el sentido del humor. Cuando le preguntan si ya ha escogido un nombre para el futuro niño, su respuesta deja a todos boquiabiertos... desde luego, no es para menos. A partir de ahí se genera un debate que va a crear un conflicto detrás de otro, cada cual más sorprendente e hilarante, y que cuestionará el carácter de cada uno y la relación entre todos los personajes.

**19-23**

**LA HERENCIA**

DAVID BARREIRO

**Antzoki Zaharra Teatro Principal.** 20:00. 25 €, 20 € castellano

Egilea Autor: **David Barreiro**

Zuzendaria Dirige: **Pepe Ocio**

Aktore zerrenda Elenco: **Fernando Coronado, Stany Coppet, Isabel Torrevejan, José Carretero**

Bruno, Sergio eta Raquel, bizitzak urrundu dituen hiru anai-arreba, deituak izan dira izeba Enriqueta hil ondoren haren herentziaren banaketara, nahiz eta inoiz ez duten izan harreman hurbilekorik hildakoarekin. Beren harridurarako, espero zutena baino askoz gehiago emango zaio bakoitzari. Baina herentziaren onarpena sinatzera doazenean, testamentu-betearazleak idatziaren azken partea irakurtzen die, non ustekabe bat baitago, haietako inork inoiz imajina ez zezakeena. Hor hasiko dira agertzen iraganeko zalantzak, inbidiak eta gorrotoak, eta azken harrigarri eta ustekabekoa ekarriko dute buruan.

Bruno, Sergio y Raquel, tres hermanos distanciados por el devenir de la vida, son citados tras la muerte de su tía Enriqueta para el reparto de su herencia, a pesar de no haber tenido nunca una relación cercana a la fallecida. Para su sorpresa, a cada uno de ellos le es concedido mucho más de lo que imaginaban. Sin embrago, cuando van a firmar la aceptación de la herencia, el albacea les lee el final del testamento, que contiene una sorpresa que ninguno de ellos podrías haber imaginado jamás. Ahí comenzarán a salir a la luz las dudas, envidias y rencores del pasado, que desembocarán en un sorprendente e inesperado final.

**19-23**

**LA HABITACIÓN DE MARÍA ESTREINALDIA / ESTRENO**

CONCHA VELASCO

**Victoria Eugenia.** 20:00. 28 €, 24 €, 20 € castellano

Isabel Chacón idazle ezagunak 80 urte betetzen ditu. Planeta sariaren irabazleak, zeinak ezin izan baitzuen hura jaso agorafobia duelako, inolako ekitaldi publiko edo familiarrik gabe ospatuko du urtebetetzea, azken urteetan egin ohi duen bezala. Gaitz hori dela eta, Chacónek 43 urte darama etxean gordeta, Madrilgo etxeorratz bateko 47. solairuan, zeina bere gotorleku bihurtu baitu, eta nora eramaten baitiote behar duen guztia (janaria, arropa, sendagaiak...). Gau horretan, sutea pizten da, eta biztanle guztiak eraikinetik irtetera behartzen dituzte. Baina Isabelentzat hori ezinezkoa da; ezin da irten etxetik.

La célebre escritora Isabel Chacón cumple hoy 80 años. La flamante ganadora del Premio Planeta, que no pudo recoger en persona por la agorafobia que sufre, celebra hoy su aniversario sin ningún tipo de acto público, ni familiar, como viene siendo habitual en los últimos años. Son 43 años en concreto los que Chacón lleva recluida en su domicilio por su condición, la planta 47 de un rascacielos madrileño que ha convertido en su fortaleza y donde todo lo que necesita (comida, ropa, medicamentos...) le es llevado a casa. Esa noche se produce un incendio y todos los inquilinos son obligados a evacuar el inmueble. Pero para Isabel esto es imposible, sencillamente, "no puede" salir de casa.

**26-30**

**IRABAZI ESTREINALDIA / ESTRENO**

JON PLAZAOLA

**Antzoki Zaharra Teatro Principal.** 20:00. 20 €, 15 € euskara

"Parte-hartzea da garrantzitsuena". Esaldi hori buruan sartu zigunak gezur galanta sinestarazi nahi izan zigun. Gaur egungo gizartea konpetitiboa, krudela eta fidagaitza da; ia edozertarako prest gaude ondoan dagoena zanpatu eta arratoi lasterketa honetan edonoren gaintetik geratzeko, gazta puxka miserable baten truke. Irabaztea da helburua. Irabazi ala hil. Baina Felixek ez daki zer den hori. Bizitza guztian ez du ezer irabazi, ez da irabazle sentitu... hala ? holakoa izan da beti. Baina ez atzera eta ez aurrera daraman bidegurutze horretan aurkitu du bere konfort-zona, bere burua justifikatu eta bere existentzia patetikoari zentzua ematen dion dekalogoia eratu du. Bizitzaren lehiaketan, irabazi, batek bakarrik egin dezake. Hala - holakoak gehiengo gara. Gurea da garaipena. Gaur gauean, ordea, Felixek sari bat jasoko du. Irabazi egingo du. Galtzen irakatsi digute, baina irabazten ba al dakigu?

"Lo importante es participar". Quien nos metió esa frase en la cabeza nos quiso hacer creer una gran mentira. La sociedad actual es competitiva, cruel y desconfiada: estamos dispuestos a aplastar al resto con tal de quedar por encima de los demás. Ganar o morir. Pero Félix no sabe lo que es eso. No ha ganado nada en toda su vida, nunca se ha sentido ganador... ha sido siempre un mediocre. Pero ha encontrado su zona de confort en ese estado que no lleva ni para atrás ni para adelante, constituyendo un decálogo con el que se justifica y da sentido a su patética existencia. En la carrera de la vida solo puede ganar una persona. La mediocridad es mayoría. Nuestra es la victoria. Pero esta noche Félix va a recoger un premio. Vamos a ganar. Nos han enseñado a perder pero, ¿sabemos ganar?

**28-29**

**LA SUMISIÓN (Y EL PORVENIR ESTÁ EN LOS HUEVOS)**

MORFEO TEATRO

**Victoria Eugenia.** 20:00. 24 €, 20 €, 15 € castellano

Eugène Ionescoren antzezlan hau, zeina Victoria Eugenia Antzokiak koproduzitu baitu Morfeo Teatrokekin batera, fartsa ero bat da, zeinean Jacobo izeneko gazte batek, inguratzen duen munduaz etsita, uko egiten baitio familia bat eratzeari. Gurasoek estu hartu eta bezatu egin nahiko dute, ezkontzera behartuz. Baina errebellian setaturik, Jacobok uko egiten dio horri ere, salbu eta munduko emakumerik itsusienarekin ezkonduko balitz. Gurasoek hitza hartuko diote, eta Roberta aurkeztuko, hiru sudur dituen neska bat, zeinak azkenean mutila limurtuko baitu.

Ionescok, absurduaren antzerkiaren maisuak, proba pasaraziko die ikus-entzuleei komedia zorrotz honetan, trufa amorratua eginez kontserbadurismoari, gizarte kontsumistari aurpegiraturaz gehiago axola zaiola irtenbide neoliberalak, non pertsonak produktibitatearen arabera neurtzen baitira, zoriona lortzea baino. Elkarrizketa eroak eguneroko bizitzaren absurdua jartzen du agerian, gizakiaren defentsarik eza populismoek eta ideologia atzerakoi eta berekoiek erasandako mundu batean. Intsumiso izateko proposatzen digu, errebelatzeko, gure printzipioei uko ez egiteko, menpekotasunean ez erortzeko.

Coproducida por el Teatro Victoria Eugenia y Morfeo Teatro, esta obra de Eugène Ionesco es una disparatada farsa en la que un joven llamado Jacobo, desencantado del mundo que le rodea, se niega a formar una familia. Sus padres intentarán dominar su desobediencia obligándole a casarse. Pero en su afán de rebeldía, Jacobo se niega a hacerlo a no ser que sea con la mujer más fea del mundo. Los padres contraatacarán presentándole a Roberta, una chica con tres narices, que terminará seduciéndole.

Ionesco, maestro del teatro del absurdo, pone a prueba al espectador con esta hiriente comedia y su burla rabiosa al conservadurismo, haciéndole escuchar a una sociedad consumista en la que importa más el encaje neoliberal -en el que las personas son medidas por su productividad- que la felicidad que consiguen. Su diálogo disparatado muestra lo absurdo de la vida cotidiana, la indefensión del ser humano ante una sociedad mundial que se ve atacada por populismos e ideologías reaccionarias y egoístas; proponiéndonos ser insumisos, rebelarnos, para no renunciar a nuestros principios, para no caer en la sumisión.

## Musika

**01-27**

**81. MUSIKA HAMABOSTALDIA**

**81 QUINCENA MUSICAL**

**San Telmo Museoa.** 20:30. 10 €

**quincenamusical.eus**

Antolatzailea Organiza: **Musika Hamabostaldia Quincena Musical**

Laguntzailea Colabora: **San Telmo Museoa**

11 kontzertu antolatu dira museoan.

Once conciertos en el museo donostiarra.

## Zinema

**08, 19**

**NOSFERATU**

FASSBINDER

08

**SOLO QUIERO QUE ME AMÉIS** (ICH WILL DOCH NUR, DASS IHR MICH LIEBT, 1976).  
Alemaniako Errepublikak Federala RFA. 104'. VOS castellano, english  
19

**EL ASADO DE SATÁN** (SATANSBRATEN, 1976). Alemaniako Errepublikak Federala RFA.  
112'. VOS castellano, english

**Tabakalera.** 19:00. 3,5 €

Antolatzaileak Organizan: **Donostia Kultura, Euskadiko Filmategia Fimoteka Vasca, Tabakalera, Elías Querejeta Zine Eskola, Donostia Zinemaldia Festival de San Sebastián**

## Kultura +

**01-29**

**DEABRUA OTE. BRUEGELDARREN MUNDUA**

**EL DIABLO, TAL VEZ. EL MUNDO DE LOS BRUEGHEL**

Bisita gidatu programatuak

Visitas guiadas programadas

**San Telmo Museoa**

Asteazkenetan Miércoles: 10:30, castellano; 18:00, euskara

Larunbatetan (abuztuaren 15ean izan ezik) Sábados (excepto el 15 de agosto): 10:30, euskara; 18:00 + 19:00, castellano

Bisita gidatu hauek doakoa dira (hala bisita bera, nola museorako sarrera), baina beharrezkoa da aurrez izena ematea

La visita es gratuita (tanto la propia visita como la entrada al museo), pero es necesario reservar previamente

stm\_erreserbak@donostia.eus / 943 48 15 61 (astelehenetik ostiralera de lunes a viernes, 12:00-14:00)

## Erakusketak Exposiciones

Abuztuaren **30a** arte Hasta el **30** de agosto

**ATZERA BEGIRAKO POETIKA. ANTON ELIZEGI ARGAZKI FUNTSA**

**POÉTICA RETROSPECTIVA. FONDO FOTOGRÁFICO ANTON ELIZEGI**

**San Telmo Museoa.** Asteartetik igandera De martes a domingo: 10:00-20:00

Komisarioak: **María José Aranzasti, Antton Elizegi.**

Erakusketa honetan San Telmo Museoa argazkilari gipuzkoarraren ibilbide fotografiko eta poetikoaren atzera begirakoa erakusten du, teknifikazioaren aurreko Gipuzkoako azken belaunaldi autoktonoak bizitako esparru fisikoko irudien bidez.

"Nire argazki-lanaren oinarri nagusia bost hamarkadatan zehar izan dira landa-paisaia, zuhaitza elementu enblematiko eta ezinbesteko ardatz gisa, eta baserria, gaur egun oso aldatuta dagoen gure egituraketa sozial berezi eta zaharraren sinbolo genetiko gisa", egilearen beraren hitzetan.

Esta exposición retrospectiva del Museo San Telmo muestra el itinerario fotográfico y poético del fotógrafo guipuzcoano, a través de imágenes del ámbito físico vivido por la última generación guipuzcoana autóctona anterior a la tecnificación.

"El paisaje rural, el árbol como elemento emblemático y eje imprescindible y el caserío como símbolo genético de nuestra singular y ancestral estructuración social, hoy muy modificada, constituyen la materia principal sobre la que he realizado mi trabajo fotográfico a lo largo de cinco décadas", en palabras del propio autor.

Abuztuaren **30a** arte Hasta el **30** de agosto

## **DEABRUA, AGIAN. BRUEGHELDARREN MUNDUA EL DIABLO, TAL VEZ. EL MUNDO DE LOS BRUEGHEL**

**San Telmo Museoa.** Asteartetik igandera De martes a domingo: 10:00-20:00

Antolatzaileak Organizan: **Museo Nacional de Escultura de Valladolid, San Telmo Museoa, Museo de Bellas Artes de Asturias**

Tentazioa, bekatua eta deabrua. Hiruren artean, pintore flandestarrek eta, bereziki, Brueghel bezalako maisuek, osatzen dute energia adierazkor, laztasun eta mugarik gabeko irudimenarekin zutik jarri zuten unibertso artistikoaren "hari gorria". Gaur egun, erakusketan, hori **Antoine Roegiers** artista belgikarrak suspertzen du XVI. eta XXI. mendeen arteko ispilu joko batean.

La tentación, el pecado y el diablo. Entre los tres forman el «hilo rojo» del universo artístico que los pintores flamencos y, especialmente, maestros como los Brueghel, pusieron en pie con energía expresiva, virulencia y una imaginación sin límites. En un juego de espejos entre el siglo XVI y el XXI, en la muestra se ve reanimado por el artista belga Antoine Roegiers.

Azaroaren **1a** arte Hasta el **1** de noviembre

## **POSTIGO, GARAI BATEN KRONIKA CRÓNICA DE UNA ÉPOCA**

**San Telmo Museoa.** Asteartetik igandera De martes a domingo: 10:00-20:00

Fernando Postigo Silvak Donostiako erreportari grafikoak San Telmo Museoari emandako Argazki Funtsetik ateratako 300 argazkien aukeraketatik abiatuta egindako erakusketa da. 50.000 negatibo inguru dituen funtsa da, koloretan zein zuri-beltzean. Aukeraketa horren bidez, Gros auzoan jaiotako fotokazetariak 1977tik 2001era bitartean egindako lanaren berri eman nahi du erakusketak. Urte horietan, *La Voz de España* eta *El Diario Vasco* egunkarietako hainbat ataletarako lan egin zuen, eta aldi horretan Gipuzkoan arrakasta handia izan zuten bi aldizkarietan egin zuen lan.

Una exposición hecha a partir de la selección de 300 fotografías tomadas del Fondo Fotográfico de **Fernando Postigo Silva** donado por el reportero gráfico donostiarra al Museo San Telmo. Se trata de un Fondo que se compone de un total aproximado de 50.000 negativos tanto en color como en blanco y negro.

Con esta selección, la exposición trata de dar cuenta del trabajo realizado por el fotoperiodista nacido en el barrio de Gros, durante el periodo comprendido entre el año 1977 y el año 2001, años en los que trabajó para diversas secciones del periódico *La Voz de España* y *El Diario Vasco*, rotativos ambos de máxima tirada y popularidad en ese periodo en Gipuzkoa.

## **Haurrak Infantil**

Kontsulta ezazu programazio osoa kultur etxeetako eta San Telmo Museoko hileko egitarauetan: **[donostiakultura.eus/haurrak](http://donostiakultura.eus/haurrak)**

Podéis consultar la programación completa en los folletos mensuales de los centros culturales y del Museo San Telmo: **[donostiakultura.eus/infantil](http://donostiakultura.eus/infantil)**

**01-31**

**DK ON! IPUINAREN ORDUA ONLINE**

**[Donostia Kultura ON](http://DonostiaKultura.ON)**

**[donostiakultura.eus](http://donostiakultura.eus)**

**Astelehenetik ostiralera De lunes a viernes. 10:00 euskara**

Ostiraletan zeinu hizkuntzaz ere bai Los viernes también en lengua de signos

Ipuinaren Orduaren saio birtualak hiriko 44 toki esanguratsutatik, **Lur Korta eta bere taldearen** eskutik. Familia osoari zuzendutako ipuinez gain, jokoak, pistak eta sariak izango dira. Animatu eta parte hartu! Saioak Donostia Kulturako youtube kanalean ahal izango dira gozatu.

Sesiones virtuales de la Hora del Cuento, desde 44 enclaves significativos de San Sebastián, a cargo de Lur Korta y su equipo, con cuentos dirigidos a toda la familia. Además de los cuentos, habrá juegos, pistas y premios. ¡Anímate y participa! Las sesiones se podrán disfrutar en el canal de youtube de Donostia Kultura.

**30**

### **COPPÉLIA, EL CUENTO DE LA NIÑA DE PORCELANA**

FACTORÍA DE CUENTOS

**Victoria Eugenia.** 18:00. 10 €, 7 €, 4 € castellano

Herrixka batean, Swanilda ausarta, haren mutila, Franz, eta artisau magiko bat, Coppelius, bizi dira. Coppelius etxe misterioitsu batean bizi da, eta han gordetzen ditu bere sorkariak: pertsonen tamainako panpinak. Haren pieza gogokoenak neska baten itxura du, Coppélia, eta hain da egiantzekoa non balkoian eserita ikusten duten guztiek benetako neska bat dela uste izaten baitute .

Factoría de Cuentosek Coppélia klasiko unibertsal famatua eszenaratzen du, antzerkirako eta familientzako bertsio honetan. Balleta 1870ean estreinatu zen, Hoffmann-en izen bereko ipuin erromantikoan inspiraturik, eta Léo Delibes-en musika zuela. Era guztietako ikus-entzuleak liluratzeko pentsatutako lana; baita haurrak ere, noski, balletaren haria antzerkirako egokiturik eta koreografia sorta jostagarri bat, txikienak balletaren eta musika klasikoaren mundura sarrarazteko. Eszenaratzea harrigarria da, sekulako girotze-lana du, bai eta bideo-proiekzioak ere, hainbat dekoratu eraikitzeke, eta jantziak liluragarriak dira, Oskar Schlemmer-en Ballet Triadiko paregabeetan inspiratuak, eta Bauhaus estetikan.

En una aldea viven la intrépida Swanilda, su novio Franz, y un mágico artesano, Coppelius, que habita en una misteriosa casa donde guarda sus creaciones: muñecas de tamaño humano. Su pieza preferida, Coppélia, tiene forma de muchacha, y es tan realista que todo el mundo que la ve sentada en el balcón cree que se trata de una chica de verdad.

Factoría de Cuentos lleva a escena, en versión teatral y para público familiar, el famoso clásico universal Coppélia, ballet estrenado en 1870 inspirado en el cuento romántico homónimo de Hoffman, y con música de Léo Delibes. Destinado a fascinar a todo tipo de público y cómo no, al infantil, ofrece el argumento teatralizado del ballet y una divertida selección de coreografías con la intención de iniciar a los más pequeños en el mundo del ballet y la música clásica. La puesta en escena sorprende con una ambientación asombrosa que utiliza, además de videoproyecciones para construir diferentes decorados, un fascinante vestuario inspirado en los inigualables Ballets Triádicos de Oskar Schlemmer y en la estética Bauhaus.